

BERRIGARA

17. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, otsailak 26

**ZUHAITZ
EGUNA**
OSPATUKO DA
LARUNBATEAN
GORLAN

●


**EUSEBIO
OSA**
EUSKALTZALEA
HIL ZEN
ASTELEHENEAN
MINBIZIAK
JOTA

●

KIROLAK

BETI BUSTI
PIRAGUISMO
TALDEA,
HERRIKO
ZALETUAK
BILDU NAHIAN

●



**63 SARITU
ETXEBIZITZEN
LOTERIAN**

Zure jaunartze argazkietarako

KIÑU

Barrenkale, 35 ☎ 76 58 05



GAMAK

Martxorako teknologia ikastaro batzuk antolatu ditugu. Bertara joaten direnek ahalmen handiko bi erramintaren manejan trebatu daitezten.

WORD PERFECT_a, testu-tratamendua erabiltzen dutenen artean zabalduena dagoen aplikazioa.

CADdy_a CADeko erramintarik potentenetakoa, eta aldi berean, erabiltzailearentzako erosoenetakoa.

INFORMAZIO OROKORRA

Ikastaroak esperientzia handiko irakasleek emango dituzte. Ikastaro bakoitzeko plaza kopurua 5ekoa izango da eta ikasle bakoitzak izango du beretzako ordenagailua.

IKASTAROA	MARTXOKO EGUNAK	ORDUTEGIA	ORDU KOPURUA	MATRIKULA
WORD PERFECT	1etik 24ra	10.00-12.00	20	15.000 pzta.
WORD PERFECT	1etik 24ra	16.00-18.00	20	15.000 pzta.
WORD PERFECT	2tik 26ra	18.30-20.30	20	15.000 pzta.
DISEINU MEKANIKOA	1etik 31ra	18.30-20.30	24	25.000 pzta.

**ARGIBIDE GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO,
DEITU 76 56 85 TELEFONORA**

Artzamendi, 1 BERGARA

BERRIGARA

Argitaratzailea:
Jardun Elkarte
 Errotalde Jauregia, 20.570
 Bergara
 Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:
 Eusko Jaurlaritza

Erredakzioa
 Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
 eta Mikel Elkoroberezar

Maketazioa:
 Eneko Azkarate eta Eduardo
 Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:
 Alex Azkarate eta Edurne
 Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:
 Inaki Eraña, Gorka Elorza eta
 Alex Labaien

Kolaboratzaileak: Jose Angel
 Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
 Angel Elkoroberezar, J. M.
 Elxepuru, J. Oregi, A. Urzelai,
 Maripi Laskurain, N. Alzelai,
 Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
 Lizarralde, Monika Belastegi,
 Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,
 Asier Madinabeitia, Josune Inarra
 eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:
 B. Cantero, M. Leturia, J.A.
 Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
 Garzia, D. Santos, P. Retolaza,
 Kifun eta Pol-Pol Mendizale
 Taldea.

Komikia eta marrazkiak: Josu
 Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:
 Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:
 BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale

Lege gordailua: SS 50/91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-
 tzen aldizkarian adierazitako esa-
 nen eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek
 Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
 Turismo sailaren laguntza jaso du

PROTAGONISTAK

AGUSTIN ARANZABAL

Igandean Coruña Realarekin bere debuta egin zuen Agustin Aranzabal dugu asteko protagonista. 10 zenbakiarekin zelairatu zuen Toshackek bergarar gaztea eta Aranzabalek partidu osoa jokatu zuen. Ez zitzaion partidu erreza tokatu Aranzabali Deportivo Coruña lideraren aurka 5 eta leku emaitzarekin galdu bait zuten donostiarrek, galegoak errez nagusitu zitzaizkielarik lehendabiziko minutuetatik.



Aranzabal lehen taldearen konbokatarioan sartzen zen bigarren aldia zen aurtengo

denboraldian eta, azkenik, 19 urtekin (martxoaren 15ean beteko ditu hogei) debutatu du, etorkizuneko Realean postu bat izan dezakeela demostratuz. Bergara K.E.k, berriaz, 500.000 pta. jasoko du Agustinen debutagatik. Zorionik beronenak Agustinentzat.

Realean debutatzeagatik milloi erdi jasoko du Bergara K.E.k

ITURRI ONETIK

Euskaraz egiteko gonbidapena

Udaleko Euskara Batzordeak proposatuta, Bergarako 6 sarreretan "*Bergara gurea euskara*" testua daramaten sei kartel jarriko dira laister. Diputazioak horretarako baimena eman bezain laister, Elosu, Angiozar, Ubera, San Antonio, Osintxu eta San Prudentzion euskararen aldeko dei hori irakurri ahal izango da. Beste herri batzuetako ereduari jarraituz, herritarrei zein gure herritik pasatzen duten guztiei Bergaran euskaraz egitera gonbidatuko zaie.

ESAN DUTE

"Jatorrizko izendapena delakoak ez du ziurtatzen produktuaren kalitatea. LABELAK, aldiz, janari horrek produkzio mailan dituen ezaugarriak jakin arazten dizkio kontsumitzaileari eta, horrez gain, produktuaren kalitatearen garantia bat litzateke".

GERMAN MURUAMENDIARAZ
 Kontsumo teknikaria
 EUSKADI IRRATIA

"Partidua hasi aurretik nahiko urduri nengoen baina taldekideek asko animatu ninduten. Toshackek dakidan bezala jokatzeko esan zidan bakarrik. Gero, zelaian, ez nuen ezertan pentsatzeko astirik eduki, nahiko lan izan nuen gainean zetorkidanarekin eta. Amaieran guztiok geunden haserre".

AGUSTIN ARANZABAL
 Futbolaria
 DEIA

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
 ☎ 79 91 82 ARRASATE

EZPELETA

etxea

Harizko eta kotoizko
 goimailako izara eta
 mantelak

Barrenkale 44 BERGARA



LA BELLA Y LA BESTIA

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00., 19.30 eta 22.30.

Igandea: 17.00., 19.30. eta 22.15.

Astelehena: 19.30.



LA HISTORIA INTERMINABLE II

Igandea: 11.30.



LAS MEJORES INTENCIONES

Osteguna: 11.30.

Zinea

▼▼ Marrazki bizidunen filme honek izugarritzko arrakasta lortu du munduan zehar, eta ez da batere harritzekoa izan **Walt Disney**ren garantia duela kontutan izanik. Ederra eta piztiaren arteko istorioan oinarriturik, abesti onenaren *oskarra* irabazi zuen iaz.

▼▼ **Michael Enderen** nobela ezaguna pantailaratzearekin lortutako arrakastaren ondoren, bigarren zatia heltzen zaigu. Bertan Bastianek beste hainbat abentura exotiko izango ditu.

▼▼ **Bille Augusten** (*Pelle el conquistador*) filme honek lehendabiziko saria lertu zuen Canneseko azken zine jaialdian. **Ingmar Bergman**ek idatzita, **Pernilla Augustek** interpretazio onenaren saria ere jaso zuen.

Ikuskizunak

▼ **Hitzaldia.** "Afrika: oraina eta geroa" izenburuko hitzaldia emango du Tsimpanga Matala Kabangu Lubumbashi (Zaire) Unibertsitateko irakasleak. Larunbatean 11.30etan UNEDen.

▼ **Bertso Jaialdia.** Ikasbidiaren alde Arrasateko San Biator Ikastolako REMeko ikasleek antolatuta. Arantzazu Loidi, Mañukorta, Imanol Lazkano eta Solozabalekin, gai-jartzaile Juanito Saizar arituko dela. Ostiralean, hilak 26, gaueko 10etan.

Farmaziak

▼ Larunbata 27:

Camacho/Amezua.

▼ Igandea 28:

Camacho/Ruiz.

▼ Astelehena 1:

Puy.

▼ Asteartea 2:

Guallar.

▼ Asteazkena 3:

Estella.

▼ Osteguna 4:

Mozos.

▼ Ostirala 5:

Camacho.

Ogia

▼ Igandea 28: Mizpildi.

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23






Zumelaga

JATETXEA

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

MAIDER ETXEBERRIA

Bergara eta Arrasateko muga egiten duen eta Epeleko erreplde berria egiteko laster bota behar duten Bergarako baserriaren izena ARTZUBI da.

MAIDER ETXEBERRIA suertatu da aste honetako irabazlea, berarendako, beraz, ARGAZKIk emandako saria. ZORIONAK !!

Eta besteok segi asmatzen, bila dabilenak topatu egiten du eta! Animo!!

HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4. 76 37 53



**Elektragailuak, TB,
bideoak, HIFI
aparailuak.**

Matxiategi, 3. 76 12 22



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



MAIDER ETXEBERRIAK jaso du aste honetan ARGAZKIK emandako saria.

HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak
Matxiategi, 4. 76 37 53



Elektragailuak, TB,
bideoak, HIFI aparailuak.
Matxiategi, 3. 76 12 22

Hurrengo Galde Debaldeko saria
HERRAN ETXEAk emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Udaletxe berria egiten badihardute dagoeneko, eta lehenengo lanak, hau da Udaletxea barrutik hustea, amaitu dute. Egia esan ez da asko geratu lehengo eraikuntzatik: kanpoko hiru horma, barruko eskilara nagusia eta arkupeak.

Horretaz gain dena berria izango da, bulego, saloi, etabarrak.

Gelditu denetik jendeak, batez ere jubilatuek eta umezain dabilzanez oso estimatua zuten arkupea dugu, eta horrekin lotuta egingo dugu aste honetako galdera

Zenbat arku ditu Bergarako Udaletxeak?



izena

abizena

telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

Epelera irteera

Mendia Bizirik, EKI eta Eguzki talde ekolojistek Epelera irteera bat iragarri dute larunbaterako, hilak 27, inguru horretan egingo diren obrek beren desadostasuna adierazteko. Irteera goizeko 9 terdietan izango da Beheko Estazioetik.

Pol-Pol

Pol-Pol M.T.ak bazkide guztiei dei egiten die datorren ostegunean, hilak 4, lokalean egingo den Biltzar Orokorreara parte hartzeko. Besteak beste, elkarteko egungo egoera, kuoten berrikuspena eta zuzendaritza batzordearen berriztatzea aztertuko dira.

Larunbatean aurtengo Zuhaitz Eguna ospatuko da Gorlan

Bergarako Udaleko Mendi Batzordeak antolatuta, larunbatean, hilak 27, Zuhaitz eguna ospatuko da Elusuko Iturri-Berriko inguruetan goizeko 11 terdietan. Guztira, 150 zuhaitz inguru landatuko dira, pagoak, urkiak eta gaztainondoak tartean.

Autobusa joateko

Udalak Bergarako ikastetxetako haur guztiak gonbidatu ditu jai honetan parte hartzera. Joseba Aizpurua udal nekazal teknikariak aipatzen duen bezala, *"haurrei zuzenduta egon arren, interesgarria litzateke nagusiek ere parte hartzea. Horretarako, goizeko 11etan Beheko Estazioetik aterako diren autobusak jarri ditugu"*.

Urteroko jai honek in-



lako Zuhaitz egunean gaztetxo ugari hartu zuten parte.

guruarekiko sentsibilitatea piztea du helburu: *"Inguru giroaren babesak duen inportantzia erakutsi nahi zaie neska-mutikoei eta, egia esan, egokiena zuhaitz eguna urteko egun guztietan ospatzea da. Hala ere, ezinezkoa da eta orain da sasoirik onena"* esan digu Aizpuruak.

Aurten, gainera, Gorlako parkea izango dena aukeratu da jai ospatzeko. Joseba Aizpuruak esaten duen bezala, *"inguru hori bultzatu eta ezagutzera eman nahi dugu"*. Zuhaitzak landatu ondoren, ogibitartekoa eta edaria banatuko zaie joaten diren guztiei Altzasu elkartean.

Etxebizitzak Elgetan

Jose Antonio Maturana Eusko Jaurlaritzako Hirigintza eta Etxebizitza kontseilariak eta Patxi Basauri Elgetako alkateak 5.663 m²ko lursail baten erosketaren finantzaketan kolaboratzeko hitzarmena sinatu zuten asteazkenean. Babes ofizialeko 42 etxebizitza eraikiko dira 11.276 m²ko lursailean Postigo inguruan eta 18 etxebizitzaren obrak jadanik martxan daude. Lursailaren erosketak 23.784.000 pta.ko kostoa izan du eta urbanizazioak, berriz, 66 milioi pta. inguru balioko du. Jaurlaritzak 90 milioi pta.ko prestamoa egingo dio Elgetako Udalari.



ETXAGI

Jatetxea

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak

Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

KIZKUR



**Heapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

SURPE

Taberna


Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 53 12
ANTZUOLA

Udalak lapurreta salatu

Bergarako Udalak, Mintegi kaleko zabaltze obrak direla eta, Mariaren Lagundiak inguru horretan zuen kanposantu pribatuaren errausketari ekin zion, XIX. mendeko bi hilarri eta ur bedeinkatuaren ontzia berreskuratuz. Orain, Udalak ur bedeinkatuaren ontziaren desagerketa eta, bide batez, Udalerriko Ondare Historiko-Artistikoaren aurkako eraso salatu du, Ertzantza horren jakinean jarririk.

Egonaldiak familia euskaldunetan

Jaurlaritzako Kultura Sailak uztailetik irailera bitartean martxan jarriko duen "Egonaldiak familia euskaldunetan" programaren barne ikasleak hartzeko prest dauden familiek beren eskakizunak martxoaren 31a baino lehen egin beharko dituzte. Programa hau familia baten euskara landu eta hobetu edo euskalkiren bat ikasi nahi duten ikasleeei zuzenduta dago eta familiek dirulaguntzak jaso ditzakete. Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan jaso daiteke.



Txapa Irratiak orainarteko lokalean jarraituko du momentuz.

Txapak Zabalotegin segi

Larunbatetik emititzeari utziko dio denboraldi baten

Larunbatetik aurrera, Txapak emititzeari utziko dion arren, badirudi bergarar irrati librearen etorkizuna ziurtaturik dagoela, beti ere, Txapak Udalak herriko talde kultural guztiei lokala uzteko egindako konbenioa betetzen duen neurrian. Konbenio horrek urtebeteko iraupena izango du eta, Txapak Udalarekin kontaktoan jartzeko ordezkari bat izendatzeaz gain, Txapan parte hartzen dutenen izenzerrenda eman beharko dio Udalarari, programa ezberdinetako arduradunak nortzuk diren jakiteko.

Udalak, kasu konkretu batzutan, lokala ixteko eskubidea ere izango du (auzokideen kexak, lokala beste zeregin batzuetarako erabili edota lokalari beste irtenbide bat aurkitzen badio) eta baita bertan zenbait obra egiteko ere.

Txapako arduradunek, berriz, baldintza hauek betetzeko inongo arazorik ez dagoela adierazi eta Udalaren konbenioa positiboki baloratu dute. Bere arduradunek lokala isolatzeko edota ahal izanez gero beste lokal batera joateko eskubidea egin diote Udalarari.

Iturkintz Berri

Amillaga 1
(B pabilola)
BERGARA

INSTALAZIOAK:

**Iturkintza
Berogintza
Gasa**

☎ 76 28 04

BELENGUA

Taberna

Pintxoak, kafeak...

Ozaeta 12 ☎ 76 20 24

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA



DEBA

GARAIA


INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80
76 06 37

Txinpartak

- ✓ **Robin Hood, lapurren printzea** haurrentzako bideoa emango da larunbatean, goizeko 11etan, Kultur Etxean JARDUNek antolatuta.
- ✓ **JARDUN Elkarteak** antolatu eta larunbatean hasiko den dantza ikastaroan 40 lagun inguruk hartuko dute parte. Klaseak Institutuko gimnasioan izango dira arratsaldeko 4retan.
- ✓ **Bertso afaria eta jaialdia** antolatu du Elgetako Udalak martxoaren 5erako. Afarirako txartelak Bolatokian eskura daitezke 1.900 pta.tan.
- ✓ **Jubilatueta**n osatu berri den mendizale taldeak, martxoaren 3an Basalgotik Klabelainatzera joateko irteera iragarri du.
- ✓ **El robo de la joya** filmea iragarri du Gazinemak datorren ostiralerako, hilak 5.
- ✓ **Word Perfect eta Diseinu mekanikoko** informatika ikastaroak antolatu ditu Gamakek. Argibide gehiago 76 56 85 telefono zenbakian.
- ✓ **Droga Gaietarako Idazkaritza Nagusiak** Udalarari adierazi dionez, apirilaren 1etik aurrera ezin izango da alkohol eta tabakoaren kanpoko publizitatea jarri.



Eusebio Osa euskaren aldeko langile amorratua izan genuen.

Eusebio Osa hil

Eusebio Osa astelehenean hil zitzaigun, 56 urte zituela, minbiziak jota. Eusebio Osa Unamuno San Prudentzioko Sakona baserrian jaioa zen eta gaur egun EHUKo Euskararako Kabineta Teknikoko arduraduna eta Gazteizko Irakasle Eskolako irakaslea zen.

60ko hamarkadatik euskalgintzan murgildurik, filosofia, pedagogia eta euskalgintza landu zituen eta, besteak beste, Gasteizko AEKren sor-

tzaitetako bat izan zen, Egunkariaren bultzatzaile eta ikastolen munduan ere jardun zuen. Euskal Filologian doktoradutza lortu zuen iaz "*Euskararen Hitzordena komunikazio zereginaren arauera*" izenburuko tesiarekin. Bere prentsarako kolaborazioak (Berrigara tartean) ere oso estimatuak ziren eta ezagutzen zutenek, Osak egindako lanaz aparte, beren izakera goraiatu dute. Gorian bego Eusebio Osa.

BERGARA

Karrozeria

Txapa - Pintura

Zubleta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

FANCY

GAZTEEN MODA!

Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5

☎ 76 10 57

BERGARA

BASALGO

Elizaren ondoan auzoko elkarteak

Basalgo elkarteak erai-kita dagoeneko lokala, auzoarena eta abadearena ziren. Hori zela eta, inork ezin zuen ezer egin lokal hauetan. Don Imanol apaiz zegoela Basalgon, elkarteak egiteko ideia izan zuen. Meza ostean jendea elkartzeko, batzarrak egiteko eta horrelakoetarako sortu zen Basalgo elkarteak. Don Imanolen ideiak aurrera egin zuen, eta hor dugu elkarteak.

Bazkideak

Hasiera hartan, hau da 1964.ean, 10 bazkidekin hasi zen martxan elkarteak. Berandutxoago jende gaztea hasi zen sartzen, 42 bazkide izatera iritsi arte. Momentu hauetan 32 dira Basalgo elkarteak bazkideak, eta beste bi sartzeko zai daude. Oho-rezko bazkide bat ere badute. Don Imanol bera hain zuzen ere. Adin

kontutan sartzen bagara, bazkideen batazbesteko adina 45 urte ingurukoa omen da.

Juan Varela, Martin Elgarresta eta Doróteo Aldasabalek azaldu zizuten bezala, urtean 540.000 pzta inguruko kaja batzen dute. Udara aldean negualdean baino mugimendu gehiago somatzen da Basalgon. Dena dela, kontsumoa goraka doa elkarte honetan. Falta kontutan, azkenaldi honetan behintzat, ez dabilta oso ongi, eta %4raino heldu dira. Basalgoko elkarte honetan emakumeek ere giltza izateko aukera botatu



Elkarteak bazkideak mahaiaren inguruan

zuten duela urte batzuk. Batzar hartan baietza irten zen nagusi. Bazkide batzuk beren giltza itzuliko zutela mehatxu egin eta bertan behera gelditu zen dena.

Elkarte honek, bere zereginetan, artean, auzoko jaiak gertatzen ditu. Elkartearen eguna, batzar

orokorraren egunean bazkari batekin ospatzen dute.

Proiektuak

Proiektuak ere badituzte. Momentu honetan sukaldean labe eta su bat gehiago eta aldaketatxoren batzuk egin nahi dituzte.

Sukaldari trebeak ere badaude Basalgo elkarteak. Hemen ditugu Idelfonso García eta Elias Lete. Hauek denetik gertatzen omen dute gainera.

Ainboa Lete

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1964an.
BAZKIDEAK: 32.
HELBIDEA: Basalgo auzoa.
PRESIDENTEA: Juan Varela.
ELKARTEAREN EGUNA: Martxoak 14.
URTEKO KUOTA: 12.000 pzta.

Aldoka Maldoka TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

ARIZNOA Taberna

- Gosariak •
- Pintxo bero eta hotzak •

Irala 1, BERGARA ☎ 76 52 30

PELI NARBAIZA IBARZABAL



Mutua General de Seguros

Agentea Bergaran

Aseguru orokorrak

Matxiategi, 3 - 5.B BERGARA ☎ 76 47 57


PINTURAS BERGARA, S.L.



Arane Erreka, 32 beheka. Tfnoa eta Faxa: 76 11 40
BERGARA

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK
- Etab...

Artzamendi kaleko etxebizitzek badituzte jabeak, baina jabe hauek arau batzuk bete beharko dituzte. Hurrengo orrietan bete behar hauei buruz hitz egingo dugu eta gainera, ostegunean egindako zozketan sarituak suertatu ziren pertsonen zerrenda ere prestatu dugu. Irakurriko duzun zerrenda oraindik ez da ofiziala, baina ofiziala dena da, etxebizitza hauek 22 hilabete barru eginak egon beharko direla



Ostegunean egin zen Zabaltegiako aretoan, eta notario baten aurrean, etxebizitzaren zozketa

Atzo zozketatu ziren Artzamendiko 63 etxebizitza itunduak

Atzo zozketatu ziren Artzamendi kaleko 63 etxebizitza kontzertatuak. Etxebizitza kontzertatu hauen barruan bi bereizketa daude: babes ofizialekoak eta etxebizitza sozialak. Babes ofizialeko 40 etxebizitza zozketatu ziren. Hauek etxebizitza sozialak baino garestiagoak dira eta beren prezioa honako hau da: metro karratua x 84.167 x 1.2.

Bestalde etxebizitza sozialak merkeagoak dira, hau da: metro karratua x 84.167 x 1.1 da. Etxebizitza mota hauek eskatzeko orduan ere baldintza ezberdinak eskatzen dira: Etxebizitza sozial bat eskatzeko, familiaren

edo etxea eskatzen duten guztien artean urteko diru sarrerak 1,8 eta 3,5 milioi artean egon beharko dira, eta babes ofizialeko etxebizitza eskatzeko, berriz, diru sarrerek 1,8 eta 6 milioi bitartean egon beharko dute.

Etxebizitzak finantzatzeko orduan ere badaude ezberdintasunak. Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak ematerakoan Etxebizitza sozialen interesak %5ekoa da eta ematen duen diru laguntza %9tik %11ra bitartekoa da.

Bestalde, babes ofizialeko etxebizitzaren interesak %6tik %12,5era bitartekoa da eta Eusko Jaurlaritzak ematen dituen diru laguntzak %4tik

%8ra bitartean kokatzen dira. Zozketan parte hartu ahal izateko ere derri gorrezkoa da, azkenengo 2 urteetan inongo etxe jabetzarik ez izatea.

Etxebizitza eskuratze-ko orduan jartzen diren baldintzak Eusko Jaurlaritzak zehazten ditu eta diru kontuak Eusko Jaurlaritzako Finantza, Plan-gintza eta Kudeaketarako zuzendariak zehazten ditu.

Azalera Eskubidea

Azalera Eskubidearen Legeak arautzen du etxebizitza eskuratu ondorengo jabetza eta lege honen arabera bi jabetgo bereizten dira: alde bategatik, lurzorua eta ho-

rreren jabe Eusko Jaurlaritzaren egiten da. Bestetik, etxebizitzaren jabetza dugu. Zozketan etxebizitza eskuratzen duenak pisuaren jabetgoa hartzen du, baina 75 urtetan "azalera eskubidearen" karga izango du. Ondorioz etxebizitzaren jabeak, bere pisua saldu, heredatu, alokatu ea... dezake, baina beti ere kontutan hartuz "azalera eskubidearen" karga.

Baina etxebizitza erosteko Eusko Jaurlaritzarengandik dirulaguntza jaso dutenek, etxebizitza eskuratu eta ondorengo 5 urteetan ezin izango dute saldu.

Bestalde babestutako dirubideak onartzeak tasatutako prezioa etxebizitzak babes ofizialeko

arabideari atxekitzea eta babes ofizialeko etxebizitzatzat jotzea ekarriko du berekin erosi eta ondorengo 30 urteetan.

Etxebizitza ezberdinak

Etxebizitza sozialen barruan hiru etxebizitza mota ezberdin daude: alde batetik, 5 pisu, 2 logela, garajea eta trasterodunak. Pisu hauetan sartzeko 3 kidetako familiak hartzen ziren kontuan. Gero, 3 logelatako 16 pisu sartzan ziren zozketan 4 edo 5 kidetako familiak eskuratu zitzaizketelarik pisu hauek. Eta, azkenik, etxebizitza sozialen barruan 4 logelatako 7 pisu zeuden eta etxebizitzak eskuratzeko 6 kide edo gehiago eduki behar zituen.

Babes ofizialeko etxeen aldetik, berriz, 40 etxebizitza zozketatzen ziren: 4 pisu 2 logelakoak (elbarritu motrizentzat); 5 pisu bi logelakoak; 27 etxebizitza 3 loge-

lakoak; eta, azkenik, beste lau, 4 logelakoak. Bai babespen ofizialeko etxebizitzek, bai etxebizitza sozial guztiek trasterotegia eta garajea izango dute.

Hurrengo baterako, Xabier Gallastegik, hirigintza zinegotziak adierazi digunez *"talde bakoitza osatzen duten pertsona kopurua aldatu beharra dago, 3 logelatako etxebizitzak 3tik 5era kide dituzten familientzat izango dira. Hori horrela egingo dugu eskaera gehienak 3 lagunez azpiko familia edo nukleoengandik baitatuz."*

Eskatzaileen datuak

Udalak azterketa soziologikorik egin ez duen arren, eskaera gehienak 2 logeletako pisuak eskuratzeko izan dira eta honen arabera, esan daiteke 3 pertsonako familiengandik etorri direla eskaera gehienak. Eskae-

rak aztertuz, mota guztietako jendea aurkeztu dela antzeman daiteke eta lanbideak ere era guztietakoak direla. Etxebizitza eskatzaileen artean esan daiteke batzabeste urteko 2.500.000 pzta. ko soldata jasotzen dutela eta adin aldetik ere denetarik dago, baina gehienbat jende gaztea aurkeztu da, bai bikoteak eta bai bakarrik.

Elbarrituek ere izan dute etxebizitzak eskuratzeko aukera, danera 4 eskaera izan dira pisu egokitu hauek eskuratzeko, baina Udalak eskaera bat bakarrik onartu du. Beste hiru eskatzaileak etxe jabeak dira eta Udalak ezarritako neurrietan etxebizitza saldu ez dutelako, beraien eskaerak ez dituzte onartu.

Etixerik gabekoentzat

Zozketan zorterik izan ez dutenekin itxoinaldi zerrrenda bat eratuko da, etxebizitza tokatu zaio-

nen batek etxeari uko egiten badio, etxea berriz zozketatuko delako.

Obrak AZSE enpresak egingo ditu eta etxebizitza tokatu zaien guztiek enpresa honekin zehaztu beharko dituzte azken orduko xehetasunak. Etxebizitza eraiki ondoren zortedunak gehienez 3 hilabeteko epea izango du etxea okupatzeko.

Etxebizitza sozialen prezioak

Guztira 28 etxebizitza dira eta hauek dira gutxi-gorabeherako prezioak. Hiru aukera ezberdin daude: Alde batetik, 5 etxebizitza, 2 logela, trasteroa eta garajedunak (7.527.700 pzta. + BEZ. % 6a); bestetik, 16 etxebizitza, 3 logela, trasteroa eta garajedunak (8.603.500 pzta. + BEZ. % 6a); eta azkenik, 7 etxebizitza, 4 logela, trasteroa eta garajedunak (9.983.000 pzta. + BEZ. % 6a).

Babes ofizialeko etxebizitzak

40 etxebizitza dira. Lau aukera ezberdin: lehenengoa, 4 etxebizitza. 2 logela, trasteroa eta garajedunak elbarrituentzat (8.557.000 pzta. + BEZ. % 6a); bigarrena, 5 etxebizitza, 2 logela, trasteroa eta garajedunak (8.435.721 pzta. + BEZ. % 6a); hirugarrena, 27 etxebizitza, 3 logela, trasteroa eta garajedunak (9.637.626 pzta. + BEZ. % 6a) eta laugarrena, 4 etxebizitza, 4 logela, trasteroa eta garajedunak (11.013.251 pzta. + BEZ. % 6a).

Kontutan hartu behar da 68 etxebizitzetatik 5 Udalak hartu dituela berarendako.



Artzamendi kaleko lursail honetan eraikiko dira 68 etxebizitza itunduak

ETXEBIZITZA SOZIALAK

• 4 logelatakoak •

1. Francisco Martin Bonilla
2. Jose Moreira Leite
3. Alfonso Alcantara Ruiz
4. Florencio Alonso Rodriguez
5. Tomas Cachafeiro Sato
6. Manuel Perez Bravo
7. Antonio Sierra Motos

• 3 logelatakoak •

1. Inocencio Crespo Martinez
2. Jose Maria Cuevas Gomez
3. Francisco Soto Moreno
4. Oskar Elkoroberezibar Mujika
5. Joaquin Jurado Cot
6. Saidi Sakaria Elbachir
7. Esperanza Bilbao Aranzabal
8. Jose Angel Roige Kamiruaga
9. Pablo Garcia Flores
10. Jabier Lazpiur Elorza
11. Alfonso Dalama Pereira
12. Francisco Cambronell Dominguez
13. Rafael Vallejo Girado
14. Ignacio Bakaikoa Larrion
15. Marciano Fernandez Matias
16. Jose Luis Cachafeiro Sato

• 2 logelatakoak •

1. Maria Rosario Sagastume Zabala
2. Miguel Agirrezabal Olabarria
3. Ignacio Barragan Beig
4. Maria del Rosario Eguren Zorroza
5. Manuel Montealegre Sanchez Camacho

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

• Lau gelatakoak •

1. Felix Velasco Frias
2. Eulogio Dacosta Conde
3. Angel Arregi Gantxegi
4. Luis Ignacio Ugalde Lamariano

• 3 logelatakoak •

1. Baltasar Cabo Fernandez
2. Francisco Herzog Herzog
3. Juan Luis Luarizaristi Eguren
4. Felix Maiztegi Zubiaurre
5. Maria Victoria Garcia Vazquez
6. Lucrecio Etxeberria Lukin
7. Jose Maria Torres Jimenez
8. Maria Nieves Garraioa Lebrero
9. Ignacio Mendibil Larrañaga
10. Francisco Morales Clemente
11. Jose Manuel Nogueiras Alonso
12. Mariano Molpeceres Garcia
13. Igor Oregi Inza
14. Marino Etxaniz Beaskoetxea
15. Juan Maria Vicente Sancho
16. Javier Garmendia Aspiazu
17. Sagrario Ballesteros Toledo
18. Jose Andoni Zabala Unzeta
19. Jesus Ignacio Murgizu Arriaran
20. Fernando Santamaria Franco
21. Francisco Vallejos Palomares
22. Maria Itziar Ibarra Ugarte
23. Jabier Arevalillo Ubierna

• 2 logelatakoak •

1. Joseba Arietaleanizbeaskoa Larrañaga
2. Iñaki Arana Oregi
3. Aitor Gallastegi Epelde
4. Maria Alberdi Landa

• Elbarrituentzako etxebizitzak •

1. Vicente Nieto Arias
(bi etxebizitza libre gelditu dira)

Zozketaren bi aurpegiak

Edozein motatako zozketa egiten denean, era guztietako iritziak izaten dira. Suertea izan dutenak pozik, besteak triste. Atzo, etxebizitza barik geratu zirenak hurrengo batera arte itxoin beharko dute. Jarraian zozketaren ondorengo bi aurpegiak erakusten dizkizuegu



**Arantzazu Juaristi
26 urte, ikaslea**

Oso pozik nago, hainbeste denbora itxoiten egon ondoren, azkenen-

go etxebizitza niri eta nire lagunari tokatu bait zaigu.

Ni bi logelatako etxebizitzara aurkeztu naiz eta babes ofizialeko etxebizitza tokatu zait. Uste dut horrelako aukerak aprobetxatzea ondo dagoela, pisua ordaintzeko orduan interesak eta, arinagoak dira. Ni nire lagunarekin aurkeztu naiz eta uste dut aukera hau izan ez bagenu, bizitza osoan pisu bat ordaintzen egongo ginela.



**Juan Carlos Zubea
32 urte, langilea
eta ezkondua**

Niri ez zait tokatu, bi logelatako etxebizitze-

tara aurkeztu naiz, orain beste aukera berri batera itxoin beharko dut.


Ezkondua nago eta orain etxebizitzen prezioak dauden moduan ikusita, nire emaztearen guraoen etxean bizi naiz eta egoerak horrela jarraitzen badu uste dut luzaroan biziko naizela aitaginarreba-amaginarrebekin

Orain daukadan irtenbide bakarra itxoitea da...










Joan zen ostiralean egin zen Kultur Etxean, orain dela urtebete inguru herriko 49 elkartek sinatu zuten Euskara Hitzarmenaren balorazioa eta dagoeneko martxan jarri den publizitate kanpainaren aurkezpena. Koldo Pereira Udaleko Euskara Batzordeburua, J. A. Mikeo JARDUNeko presidentea, Eli Payros Hitzarmeneko teknikaria, Mari Karmen Garmendia Jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusia eta Victoriano Gallastegi alkateak, balantze positiboa egin zuten.



Ostiralean Kultur Etxean egin zen Euskararen Hitzarmenaren urtebeteko balantzea

Urtebeteko balantze positiboa



Victoriano Gallastegi
Bergarako alkatea

"Hitzarmena sinatu zenetik urtebete pasatu da eta urte honetan egindako lana oso positiboa da. Udaletxean, bai komisi informatiboetan, gobernukoan zein Ple-noetan aktak euskaraz jasotzen dira. Hori kontutan hartzekoa dela uste dut eta hemendik aurrera ere bide beretik jarraitzea da gure nahia. Bestalde Hitzarmena sinatu zuten talde guztiei esan nahi diet, bide beretik jarraitzeko, Euskal Herriko kultura euskararen bitartez joan behar delako".



Jose Angel Mikeo
JARDUNeko presidentea

"Bergaran euskaldunen kopurua ia % 70ekoa izateak, eta eskolan dabilen jendea euskaldun eredu-tan eskolatuta egoteak kezka bat sortzen zigun hori ez zelako islatzen kalean, eta eskola bera ez zelako nahikoa euskararen erabilera ziurtatzeko.

Beraz, hitzarmen hau gazteen munduari begira egin zen batez ere eta gazteen artean aisialdiak duen garrantziaz jabeturik lortu zen herriko 49 talderen arteko akordioa euskararen erabilera bultzatzeko".



Elisabet Payros
Hitzarmeneko teknikaria

"Punturik garrantzitsuenak izango litzateke, taldeen arteko harremanak euskaraz izatea, barne administrazioa euskaraz eramatea eta horren barruan pertsonen artean izan behar dituzten harremanak euskaraz izatea, eta, gero, 11 urtez azpikoentzat antolatzen diren ekintzak euskaraz izatea. Horrez gain, herriko berriemateak talde hauen % 50a euskaraz emateko konpromezua hartu zuten. Balorazioa positiboa da, talde guztietan aurrerapausoak eman direlako".

Emaitzak datutan

Ezarritako helburuak portzentaia hauetan bete dira

- Kultura taldeak.... % 93a
- Kirol taldeak.... % 60a
- Eskolak.... % 74a
- Beste batzuk.... % 95a
- Berriemak: 4 berriemak:
 - Bik.... % 50etik gora
 - Batek.... % 30a
 - Besteak.... % 12a

Kirol taldeetan emaitza bajuak daude bizpahiru talde ez direlako oraindik martxan jarri. Eskoletan, ostera, langile guztiek ez dituztenez helburuak ezagutu, emaitzak ere bajuak izan dira, helburu hauek langile batzuk bakarrik bete dituztelako.

• Euren arteko harremanak Udalarekin dituztenetara mugatu dira eta hauek horrela izan dira:

- Euskaraz.... % 80a
- Erdaraz.... % 13a
- Elebrietan.... % 7a

• 11 urtez azpikoentzat bideratutako ia iharduera denak euskaraz izn dira, % 3ak baino ez dituelarik jasozten berauek erdaraz.

Arazoak

- Kirol talde gehienek erdaraz egin behar dute Federazioarekin.
- Berriemak batek oso aldaketa eskasa egin du.
- Bi edo hiru kirol talde ez dira oraindik martxan jarri.
- Taldeei zehazten zaizkien helburuak taldeko kide guztiei iristea.

1993rako asmoak

- Euskaraz lan egiteko ohitura finkatzea.
- "Euskaldunei euskaraz" erizpidea bultzatzea.
- Entrenatzaile-monitoreentzako hizkuntza tailerrak antolatzea.
- Talde berriak sartztea.



Hitzarmena sinatu zuten kutur taldeen % 93ak ezarritako helburuak bete ditu.

HAU EZ DA BERGARAKO BESARKADA

**Euskararen Hitzarmena
1991-12-21**

Zabalkunde kanpaina martxan dagoeneko

Ostiralean egun hauetan martxan jarri den zabalkunde kanpainaren aurkezpena ere egin zen. Asier Arrieta publizistak burututako kanpainaren oinarria "Hau ez da Bergarako besarkada" esaldia da.


Esaldi honekin, I. Guda Karlis-tari amaiera eman zion Espartero eta Marotoren arteko besarkadarekin, Bergarako Besarkada ospetsuarekin, hitz jokua egin nahi zana da. Karlista eta liberalen arteko besarkada harek euskal foruen desagertzea suposatu bazuen ere, eta euskal ohitura zaharren aurkako traizioa bezala interpretatu izan bada ere, Euskara Hitzarmenak haren kontrakoa izan nahi du, euskararen alde eginez.

2.000 insignia

Zabalkundea bi soporteren bitartez egingo da: alde batetik aste honetan eta hurrengoan BERRI-

GARAN 3.200 diptiko banatuko dira. Aste honetan banatuko diren hitzarmena sinatu zuten 49 elkarten firma eta seiluak azaltzen dira eta datorren astean banatuko diren, ostera, hitzarmenaren logotipoa erakusten da (behean ikus dezakezuen).

Horrez gain kalean 400 kartel inguru jarriko dira eta Hitzarmenaren logotipoarekin egin diren 2.000 insignia, herriko ikastetxeetan OHOKo ikasleen artean banatuko dira. Horrekin batera, inkesta bat egingo zaie ikasleei, euren aisialdian, eskolatik kanpo egiten dituzten ihardueretan, euskaraz edota erdaraz egiten duten jakiteko.



Euskara Hitzarmenaren logotipoa

**Hitzarmenaren
nondik norakoaren
balantzea egiteko
Mari karmen
Garmendia
Hizkuntza
Politikarako
Idazkari Nagusia
izan genuen
Bergaran joan zen
ostiralean.
Momentu honetan
pil-pilean dauden
gaiei buruz eta
Hitzarmenari
buruz berarekin
hitzegiteko aukera
izan genuen.**



MARI KARMEN GARMENDIA Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusia

BIZI-BIZI DAUDEN GAIEZ BERBETAN

Ormaiztegin jaio zen orain dela 46 urte, ez-konkuda dago eta bi seme-alaba ditu, 21 urtekoa mutila eta 18koa neska. Senarra ingenieroa da.

Sei senidetako zaharrena, Magisteritza ikasi zuen eta ikastoletan gaztetatik 18 urte zituenean hasi zen lanean. Deuston Filologia Erromanikoa egin zuen eta geroxeago Estrasburgoko Unibertsitatean doktoradutza. Urte asko eman ditu irakaskuntzan lanean: Santo Tomas Lizeoan 10 urte, Donostiako Elizbarrutiko Irakasle Eskolan ere irakasle izan zen, EUTGn Euskarako irakasle Patxi Altunarekin eta lehenago Ricardo Arregi, Andoni Sagarna, Mikel Lasa eta beste batzuekin lankidetzan Alfabetazea jarri zu-

en martxan.

Zeruko Argian 18-19 urte zituenean hasi zen idazten; Miren Olarreaga izengoitiarekin firmatzen zituen artikuloak.

Euskararen munduan denetarik egin du eta Jaurlaritzan, berriz, 1985-etik dihardu lanean.

- Mari Karmen, zer nolako indarra du Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak Eusko Jaurlaritzaren barruan?

- HPIN Lehendakari-zari lotua dagoen organo bat da. Organo horizontala da, hau da, berez ez da sail bat bezalakoa baina Lehendakari-zari lotuta dagoelako eta duen definizioarengatik beste sail guztietara iritsi daiteke. Egia da, ez ejekuzio mailan, baina bai iritzi

mailan, koordinazio mailan eta baita euskeraren legeak dioena betetzeko zaintzaile mailan ere.

Irtentzako bat zen euskeraren sail bat egitea eta den dena han biltzea eta beste soluzioa bat zen eta nahiz eta zailagoa izan normalena iruditzen zaidana, sail bakoitzak bereziki dagokion ardura har dezala bere gainean. Normalkuntzarako guztiguztiek beren ardura bete behar dute. Guk nahi dugun euskararen normalkuntzak guztion ardura eskatzen du.

- Zergatik uste duzu sortu dela hainbesteko liskarra administrazio-ko hizkuntza normalkuntzarako planaren inguruan, kontutan izanda, batez ere, lehenago adostutako plana

zela?

- Zalantzarik gabe arrazoiatariko bat da euskararen normalkuntzari buruz eta baita ere herri honi buruz, iritzi, ikuspuntu eta egitasmo diferenteak ditugula. Beste arrazoiatariko bat, Katalunian ez bezala, eta zoritxarrez hemen gertatu ziren hainbat gauzak jarraipenik izan ez dutelako, abertzale ez direnak hizkuntzarekiko loturirik ez dute adierazi. Katalunian, berriz, nahiz abertzale nahiz ez abertzale hizkuntzaren inguruan badago iritzi amankomuna eta adostasuna. Garbi dago abertzale baten, definizioz, ez duela euskerarekiko hausduririk egingo. Baina tamalgarrria da ez abertzaleek lehenik zetorren tradi-

zio bati, eta Julio Urkijo edota Toribio Etxeberria sozialista eta euskaltzale zirenei buruz ari naiz, jarraipenik ez eman nahi izatea.

- Eta ze irtenbide izango du gobernuan honen inguruan sortu den konponezinak?

- Bai nik eta baita alderdiak argi dakagu gai honen inguruan hartu dugun jarrera. Baina beste gauza bat da eguneroko jardunean sortzen diren arazoak. Bergaran Euskararen Hitzarmenarekin sortu zaizuen, esate baterako, gauza batzuk lortu dira, beste batzuk ez, hemen laguntza berezi bat behar da, bestean asmatu da..., hori gauza guztietan gertatzen da, baita administrazioko planetan ere. Bergaran egin duzuen egin behar dugu guk ere: jarritako helburuak hobeto bete daitezen neurriak hartu. Baina gauza batzutan zuek nahi bezala helburuak bete ez direlako ez zarete Bergaran Hitzarmena zailtzan jartzen hasiko, Hitzarmenaren filosofiari eutsi egingo diozue. Guk beste hainbeste, guk sekula ez dugu onartuko akordioa bera eta plangintzaren zutabeak zailtzan jartzea. Diskutigarria dena, jarritako helburuak lortzeko ze neurri komeni zaigun hartzea. Epeak luzatu behar badira luzatu beharko dira. Kontua aurrera egitea da.

- Euskal Eskolaren Lege proiektuari kritika zorrotzak egin zaizkio euskara dela eta: A ereduari eusten diola haurren euskalduntzea segurtatzen ez duenean, D ereduaren ere euskara maila eskaseko irakasleak sartzeko

bidea irekitzen dela, etab. Zer diozu honi buruz?

- Ni oso pozik nago ereduaren diseñoan eta indarrean jartzean parte zuzen-zuena hartu nuelako. Eta gainerta uste dut A ereduari eutsi egin behar zaiola, badaudelako oraindik, ez hainbeste Gipuzkoan eta Bizkaian, gurasoak A ereduari dutenak eta gurasoen eskubide horiei erantzun egin behar zaie. Orain, nik uste dut A ereduari modifikatu egin behar dugula, hau da, ez dugu ezer egiten A ereduko Euskera asignatura "Maria" bezala planteatuta, horrek asarretzen nau ni. Beraz, A ereduari bai baina behar den moduan, kualetiboki emaitzak hobetzeko. A ereduak onarpen

zabala du Araban. Diranak direla, aurtengo ikasturteko prematrikulak ikusi eta ikasleen %73a B eta D ereduari apuntatuta dago Euskal Autonomi Elkartearen.

- Ezagutzen dituzu Bergara eta inguruko

ruz?

- Oso interesgarriak dira. Hain dira interesgarriak, aurtengo udaran bereziki aztertu nahiko genituzke kanpoko espezialistak ekarrita. Hizkuntzaren berpizkundarako dauden gizarte mu-

"Aurtengo udaran bereziki aztertu nahiko genituzke, kanpoko espezialistak ekarrita, JARDUN, AED eta era honetako ekimenak".

herrietan sortutako euskararen aldeko ekimenak (JARDUN, AED, etab.). Ze balorazio egiten duzu horiei bu-

gimenduak aztertu nahi ditugu. Orain hemen gertatzen ari den mugimendua honek, neurri batean galdutzat edo ahuldutzat jotzen genituen garai bateko ikastolen aldeko mugimendua gogorarazten du.

- Eta Euskara Hitzarmena nola ikusten duzu?

- Oso balorazio ona zeren hitzarmen hura ez da geratu bere hartan. Urtebete pasatxo igaro da eta jarraipena egin da, eguneroko lanean jardun da eta badago perspektiba bat.

- Euskarak ba al du indarrik gobernu bat desegiteko?

- Belgikan izan du, hemen ez dakit zer gertatuko litzateken.

- Ona al da euskara albiste izatea?

- Ona izan daiteke euskara albiste izatea.

- Lortuko al da lege-gintzaldi honetan akordiorik EGUNKARI-Arekin?

- Gauza izan beharko ginatke euskaltzaleok akordiotara heltzeko.





Appéniz

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.


Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

**Hauteskunde Orokorrak
aurreratzearen alde al zaude?**



Pili Vallejo
36 urte, etxeoandra

Beharbada beharrezkoa litzateke, ez dakit.




Vidal Mujika
63 urte, langilea

Bai horixe, zenbat eta gehiago hobe, danak lapurretan dabiz eta.



Rosa Maria Alonso
29 urte, ikaslea

Gaur egungo egoera ikusirik, bai. Dena bastante gaizki dagoela uste dut.



Gorka Gonzalez
36 urte, langilea

Nik uste dut baietz, baina ez dakit datorrena hobe izango den.

**ETXE-
-AUNDI**
Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak
Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

**LARRAÑAGA
eta ZUBIA**
Banatzaileak
Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak...
Martokua 32, tfnoa: 764594

LILURA
**EDERTZE
INSTITUTUA**
Bidekurutzeta, 7
☎ 76 31 71
BERGARA


**KONDE
PANADEROKUA**

Burdinate 1, Tfnoa: 76 02 57

ELKAR

Arruriaga 1, behea ☎ 76 58 16
BERGARA

- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
 - Termo-enkolatuak
 - Burdineko espiralak
 - Plastikozko espiralak
 - Faszikuloak
- JENDEARENTZAKO FAXA
- PLASTIFIKAZIOA
- PLANOEN KOPIAK



Bi aukera bakarrik


"Nazionalismoa, ikuspegi kultural, etniko, zientifiko eta politikoetatik nazkagarria iruditzen zait gaur egun eta gu kaka horretan bizi gara". Hala dio Argia aldizkariaren "Erranak erran" sailean jasotako Xabier Leteren zita batek. Urtarrilaren 26ko Egin egunkarian oartzarruarrak esandakoa omen da.

Bere testuinguruan aztertu beharko litzateke esaldi horren esanahia, baina erreflesio bat merezi duela uste dut. Euskaldun-espainiar (bi nazionalismo) dikotomia bizi duen Euskal Herri honetan bai alde batekoak edo beste-koak ustezko talde horren dogma zalantzan jartzeak ez dakit etxeko paretak dantzan jarriko dituen -sendoak ikusten ditut nik-; hori bai, harridura puntua badakar eta zer pentsatua ere bai.

Euskaraz bizi denak nazionalista edo abertzalea izan behar al du derrigorrez? Galdera honi edo Xabier Leteren esaldiari erantzuna eman aurretik hausnarketa bat egiteak merezi duela uste dut.

Eguakitz gau batean nire lagun batekin herrien eta Euskal Herriaren autodeterminazio eskubideaz ari gine-nean, beste galdera hau sortu zitzaigun. Nire burua auto-determinatu dut edo besterik gabe onartu dut nongoa naizen?

Joseba Lezeta



Eusebio Osa

Ez zitzaion tokatu Bergaran denbora askoan bizi zela. Baina San Prudentzio auzoko Sakone baserrian 36ko gerra lehertu baino hilabete batzuk lehenago jaio zen idazle eta pentsalari honek tinko eutsi zion bizitzara osoan zehar sortetxean ikasitako euskarari. Oso gazterik euskaltzaletu zitzaigun Euxebio eta, Oñatin hasieran eta Araban geroago, frankismo garaiko urte latz haietan makina bat lan burutu zuen: aldizkariak sortu, idazlanak moldatu, liburuak argitaratu, euskalduntzeko ikastaroak antolatuz, eskolak eman eta abar luze bat, beti gure hizkuntza landu eta sakondu guran.

Euskara, ordea, ez zen bere kezka bakarra. Gizarte-arazoei buruzko ekintzetan ere ordu mordo pasatu zuen, sarritan ahalegin horietatik probetxu pertsonala baino gehiago buruhausteak eta desgustuak jaso arren. Ez zuen, agian, beti asmatuko; hala ere, azkenera arte iraun du gure herritar honek bere tema horretan —zarata haundirik gabe, baina eten barik—, Euskal Herriko auziak eta problemak ezezik, nazioarteko gatazkak eta arazoak ere aztertuz, kanporatuz eta salatuz. Izan ere, errotik eta bihotzez hain euskaldun izanik, zeharo internazionalista baigenuen gure laguna.

Gasteizko Irakasle Eskolan eta Unibertsitatean, besteak beste, bere fruturik helduenak ematen ari zenean eta bere lanaren uzta eta saria jasotzeko sasoa iristen ari zitzaionean, hain zuzen, joan egin zaigu. Bergara eta Euskal Herri osoaren izenean ESKERRIK ASKO, Euxebio!

Jerardo Elorza

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak
Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

JOSEFINA

- Ezkongaiak orrazten eta lle-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
 - Masajeak, solariuma, perikura, estetika...
- Espalola 4, ☎ 76 35 38

LAGUN ARO

ASEGURUAK

Agentea:
RAMON IRAEGUI



ORDEZKARIA BERGARAN

Ramon M. Lili 6
Tfnoa: 76 23 30
Faxa: 76 41 54
20.570 BERGARA



VID-ART

Bidriera artistikoak

**BIDRIERAK - MURALAK -
ISPILUAK-KRISTAL
BISELATUZKO
ATEAK - etab.**

Azal eiguzu zure ideia
VID-ARTEk
gingo dizu.

BELANBIDE, Z/G - 20.570 BERGARA
Tfnoa: 76 23 30 / 76 41 54

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

Garnish Bitxitegia

% 15eko beherapenak

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

JULIA Frutadenda

Matxiategi 4, behea BERGARA

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4, EIBAR
☎ 79 63 42 ARRASATE



□ Jose Ibarri despedida

Asteartean Bergarako **banketxe** eta **aurrezki kutxa** ezberdinetako zuzendariak jubilatzeaz dagoen **Jose Ibarri Kaja Laboraleko** orainarteko zuzendariari despedida-bazkaria eskeini zioten Osintxuko Txuringo Jatetxean. Kooperatiba munduan 27 urte eman ditu lanean Jose Ibarriak, azken 12 urteak Kaja Laboraleko zuzendari modura. Orain jubilatzeako ordua heldu zaio eta, ohiturari jarraituz, Bergarako **bankako** lankideek primerako agurra eskeini zioten asteartean, gure kamara bazkalosteko tertuliaren lekuko zelarrik. Gu ere agurrera gehitu eta gure zorionik sentikorrena eman nahi diogu Jose Ibarriari.



□ Iturkinek Jose Mari Garitano omendu dute

Begarako iturkinek egin berri duten **urteroko bazkarian**, orain jubilatzen den Iturkintz-Berriko **Jose Mari Garitano** lankideari omenalditxo bat egin zioten joan den astean. Txuringon bildu, primeran bazkaldu eta, ondoren, Jose Mari bere gremioko lagunak agurra jaso zuen, plaka oroigarri bat tarteko. Zorionak Jose Mariri eta gauzak ondo jarrai dezatela etapa berri honetan.

AGENTZIA:

J. ELKORO

Ibargaral 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

ZURICH

VITA


UNIBER

CAUDAL

HISPANA



ZURICH TALDEA ASEGURUAK



□ **Tabladu berria**


Aurtengo Karnabaletan Udalak erosi berri duen tabladua ikusteko aukera izango zenuten. Udalak Gamiz-Fikako (Bizkaia) *Largay* enpresari erosi dio **3 miloi t'erdí** pta.tan eta erosteko arrazoi nagusia, "*muntatzeko erreza izatea*" litzateke Rufina Olasagasti Kultur Gestorearen esanetan, orain egun bateko lana dena, lehen, egurrezko tablauarekin, bi egun t'erdí ingurukoa izaten baitzen. Gainera tabladu honek 8x6 m.ko (8x12 m.ko eta 7'5 m.ko altura du guztira) bi zati egiteko aukera ematen du, zenbait kasutan auzoetara eraman ahal izateko.



Tabladua haundiegia dela asko hitz egin da egun hauetan kalean. Baliteke, baina taldeek, tabladua erabili behar dutenek, behintzat, eskertuko dute. Argozkian *Drindots* taldea asteartean.

Zertan dihardute ba?

MERINO/AYASTUI



Euskadiko Kross Txapelketan Antonio Merinok seniorretan lortutako 6. postuak eta Beñat Ayastuik juniorretan egindako 7.ak Zornotzan jokatu beharreko Espainiako Txapelketan parte hartzeko aukera eman diete.

JULIAN AZKARATE-ASKASUA



Igandean egindako batzar orokorraren ondoren, 57 urteko bergarar hau San Migel Pe-ko presidente berria izendatu dute. Julianek Miguel Angel Unamuno ordezkaturako du San Migel Pe-ko zuzendaritzan.

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta 26, BERGARA



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

Umore giroan

Kriada berezia

"Maskuelo"nera agertu ei zan neska gazte bat kriada izateko asmotan. Baiñan, kondizioño asko ipintzen zebazen orretarako. Etxian euki biar ziran, aspiradora, "labaplatos" mekanikua etabar. Ordu kontuan be esijentzia asko ipintzen zitxuan.

"Maskuelo"k bere aldetik:

- Ta zuk gazte, badakizu pianua jotzen?

- Ez.

- Ba, orduan, ez zaitxugu biar.

Ur esnia

Esne-saltzaile bat denunziau zeben esniari ur asko botatzen zetsalako. Multia pagatzeko orduan, diño:

- Ta zuek zelan dakizue gure esniak ainbeste ur daroiala?

Orduan, sekretariuak:

- Konprobatuta daok: eskalluak, esnetan, segitxuan iltzen ditzuk eta uretan bizi. Ta ara, zure esne-marmitxan, urrengo egunian be, bizi-bizirik jeuazen.

Pedro Zelata



Umore Ona elkartearen orain 25 urte.

ORAIN DELA...

Umore Ona abesbatzaren zilarrezko eztaiak

Gure abesbatza famatuak ha maikatxo aldiz erakutsi du, bai herrian eta bai herritik kanpo, Bergarak musika arloan antzinatik duen maila eta izena.

Abesbatza-kantuen munduan urte guzti horietan egindako ahaleginak besterik gabe mereziko luke gu guztion txaloea, baina badago beste arrazoi bat Umore Onaren lana goraiatzeko, izan ere, trukean ezer eskatu gabe jardun baitute la guntza eskatu zaien guztietan.

43ko gazteek argi utzi dute beren gizatasuna inguruko ospitale, osasun-etxe, etab. etara beren abestien mezu alai eramanek.

Baina urteak ez dira alperrik

pasatzen eta abesbatzako 16 kideak sorreraren 25. urteurrena ospatzeko prestakizunetan dabilta. Eta ospakizun berezi honetarako, albora utzi dute "gizonezkoentzat bakarrik" orain arteko printzipioa eta hor dabilta beste hainbeste "señoritarekin" batera entsaiatzen. Oraindik zehasteke dagoen egun batean kanta berriz osatutako jaialdi bikaina eskeini nahi liokete beren entzulegoari. Eta errepertorio horren barruan izango da Miguel Gonzalez Bastidaren "Lo egin maitea" kanta, oraintsu Euskal kantagintzaren II. Jaialdian saritua izan dena.

1968. urtea. La Voz de España.

ZUBI
ZP PLAST
☎ 76 40 69

HASIERAKO PROMOZIO BEREZIA!!

Orain zure aukeran
superleho isolatzaileak

- PVC - VEKA aleman sistema
- RPT, INESPAL (aluminioa)

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa: 76 17 27

HARATEGIA - URDAITEGIA

Sebastian Imaz

**Bildotsa, txahala eta
oilazkoak**

Harane Erreka, 1
76 32 67 BERGARA

Kabuzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 56 62

BERGARESA

MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte, 8 ☎ 76 11 99 / 76 14 27
Faxa: 76 04 77 BERGARA


Erakusketak

▼ **Juan Jose Altuna** margolari bergararrak bere lanak ikusgai ditu Kultur Etxean igandera arte. Larunbatean eta igandean 12etatik ordubietara eta betatik 8etara.

▼ **Eskulanak.** Maria Asun Akizu, German Amurrio eta Javier Ugalde Simon Arrieta Zeramika taldeko kideen erakusketa ikusgai izango da Elgoibarreko Kultur Etxean martxoaren 12ra arte.

Aukeran

▼▼ **Zezeagak eta Laduchek** Eugi eta Belokiren aurkako pelota partidu interesgarria jokatuko dute igandean arratsaldeko 4 terdietan Eibarko Astelena pelotalekuan. Laduchek ezkerreko eskua minduta duen Etxaniz bergararra ordezkaturiko partidu erabakikor honetan. Zezeagak eta Laduchek nahikoa izan dute 18 tantu egitueta finalean sartzeko



Kirolak

▼ Saskibaloia:

- *Bergara-Goierri* (jubenil mutilak). **Igandean** 12.15etan.

▼ Futbitoa:

- **Astebukaeran** Kiroldegian.

▼ Futbola:

- *Bergara-Lasalle* (lehen mailako infantila). **Larunbatean** 11etan Ipintzan.

- *Bergara-Eibar* (lehen mailako jubenila). **Larunbatean** Agorroren 16.30etan.

- *Bergara-Aloña Mendi* (2. infantia). **Igandean** 10etan.

- *Bergara-Aloña Mendi* (lehen kadetea). **Igandean** 11.30etan.



5

PROFESIONALAK

- Astebukaera honetan ere ez dago pelota partidu profesionalik Udal Pelotalekuan estelar interesgarririk antolatzerik izan ez delako. ETBk larunbat arratsaldean Labrit pelotalekutik 16.30etan Retegi-Tolosa eta Urionaguena-Galarzaren arteko partidua eskeiniko du.

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motorren bobinak eta
- ✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibarteko
espezialitatea

HEMENDIK AURRERA OSTIRALETAN
GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK

Barrenlale 16, ☎ 76 20 62

Merezi du probatzea

Gustatuko litzaidake kontatzea zer izan den niretako telebista gabe egotea azkenengo 2 urteetan eta zer suposatu duen.

Orain konturatzen naiz hainbeste urtetan sufritu dudana intoxikazioaz, batez ere biolentzia eta bortxakeriari dagokionez. Estatistikek esaten dutenez, milaka hilketa ikusten ditugu urtean zehar. Gustatuko litzaidake jakitea munduan dagoen desmadrean zenbateko eragina duen telebistak.

Kasualitatez telebista ikusten badut ere, konturatzen naiz zenbat ordu galdu dudana nire bizitzan eta kabreatu egiten naiz nire buruarekin.

Eta zer egiten dut orain? Konturatu ondoan pertsonak daudela, gehiago hitz egin, gehiago besarkatu, gehiago lo egin, gehiago irakurri, irratia entzun... Gehiago pentsatu nire kabuz eta disfrutatu nere etxeaz eta bizilagunez. Hala ere oso ondo dakit zer pasatzen den munduan, eta uste dut informazio hobe jasotzen dudala, garbiagoa.

Hala ere pentsatzen dut telebista arrazionalki erabilia tresna zoragarria izango litzatekeela lur honetan

bizitzeko, ikasteko, informazio garbiagoa jasotzeko, etab. Baina oso urrun gaude. Nik telebista barik jarraituko dut.

Konbidatzen zaituztet pare bat aste telebista barik egotera eta gero gutun bat idatzi Berrigarara, ziur egon denbora edukiko duzuela.

X. A. 15.363.668

"Beatus ille qui procul negotiis" *

Iñigo Urrutiari maitasunez:

BERRIGARAREN 93. zenbakian esaten zenuen, bergararrok tren-gosez gaudela Goiko Estazioko trenak kendu zigutenetik baina esperantza badagoela, zuk bataiatu duzun "Ultra txu-txu" horri esker (hau da, abiadura haundiko trenari esker). Zure ustetan, Bergara den "oriñal" hau nazioaren bidegurutzetara bihurtuko da eta gainera, kapitaletara orduerdian iristeko aukera ere izango dugu.

Harrিতa gaude. Ez dakigu txantxetan ari zaren, zure fantasiak kale-ratzeko gogoan zen edo ignorantzia den, eta gehiegi luzatu gabe zera esan nahi dizugu:


Aspalditik jakina da ehundaka mila

milioiko inbertsio honek kapitalak (hiriburuak) lotuko dituela bakarrik. Kendu burutik beraz Bergarako apeaderoa. Gainera, tren honek ez du txu-txu egiten, ZOOOM! baizik, "lurrikara" txiki batzuk sortuko dituelarik bergararontzat abantaila adierazgarri bezala. Eta azkenik, Bergarako biztanleontzat (beste guztientzat bezala), amortizaezinak diren gastuak ordaintzea geldituko da, eta noski, kaka, kalte eta moletia guztiak jasan eta... ixiltzea.

(*) "Zorionekoa munduko arazoetatik urrun bizi dena"

Mendia Bizirik

Tiira ba!



Josu Okina

IGNACIO MORENO: "Piraguismo zaletu guztiak erakarri nahi ditugu"

Eskubaloia

Bergara K.E.ko senior gizonzkoen eskubaloia taldeak galdu egin zuen 22 eta 24eko emaitzarekin larunbatean Kiroldegian Bizkor liderraren aurka jokatuako partiduan.

Pelota kiniela

Bi lagunek asmatu zuten "Berrigara pelota kiniela"ren 2. ihardunaldia, bakoitzak 54.950 pta. eskuratuz. 785 boletu egin eta saritan 109.900 pta. banatu ziren. Bestalde, igandean Eibarren Eugi eta Belokiren kontrako partidua ez du Etxanizek jokatuko ezkerreko eskuan mina sentitzen duelako. Bere ordeiz, Laduchek jokatu du Zezegarekin.

Orain 10 bat urte sortu zenetik piraguismoarekiko zaletasuna pizten salatu da Beti-Busti bergarar taldea. Ignacio Morenok zuzenduta, bazkide kanpalna berri bati ekin dio, kirol hau gure herrian behingoz indartu asmoz.

- Nola sortu zen Beti-Busti?

- Orain 10 bat urte 5 bat lagun izugarri gustatu zitzaigun piraguismoa kirol hau hemen ezagunagoa egin zenean. Hortik Irungo Santiagotarrak taldearekin kontaktoan jarri eta haiek erreztasun guztiak eman zizkiguten lehen pausoak emateko. Ondoren, Bergaran talde bat sortu genuen.



- Taldea asko hazi da?

- Asko ez. Hasierakoei baten batzuk gehitzen joan zaizkie baina badakigu Bergaran piraguan ibiltzen den jendea bada-goela eta gure asmoa jende hori taldera erakartzea litzateke.

- Zeintzuk dira zuen aktibitateak?

- Zenbat eta aktibitate gehiago antolatu, orduan

eta laguntza gehiago emango liguke Federazioak. Horregatik udaberri aldera, piraguismoa hasiera ikastaro bat, windsurf eta urperatzeko has-tapen ikastaroak, hitzaldiak, irteerak... antolatu nahi ditugu

- Kirol garestia al da?

- Ekipo arrunt bat 40-50.000 pta. tartean egon daiteke baina merkeagoak ere lor daitezke. Federatu karnetak, berriz, 2.500 pta. balio du. Hasten direnei ekipoak uzten dizkiegu erosteko pausua eman aurretik.

- Edonon ezin daiteke piraguismoa egin...

- Inguruan leku apropos asko dago: Oñati, Landa, Bidasoa, Gares..., baita Iparraldean ere. Elkartu, kotxea hartu eta irten besterik ez da egin behar. Ea jendea animatzen den...

Kirol datuak


Udal Kirol Zerbitzuak emandako datuen arabera, 4.121 lagun egin ziren iaz Kirol Zerbitzuko bazkide, kopuru horren % 96a bergararrak zirelarik. Urtean zehar 126.785 sarrera zenbatu ziren igerilekuetan, uztaila izan zelarik jende gehien erakarri zuen hilabetea 22.424 sarrerekin (bi egunetan eman zen errekorra 1.495 lagunekin). Ikastetxetako 761 ikaslek hartu zuten parte ordaindugabeko ikastarotetan eta beste 651 lagun ordaindutako ikastarotetan aritu ziren. Azkenik, Kiroldegian astero 70-72 orduko batz besteko erabilera izan zen.



MARKIEGI Automobilak

Automobil eta kamioien karrozeria eta mekanika

Lelzeaga, 1 (San Lorentzo pol / Ind)
☎ 76 35 09 BERGARA



JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95



Juzgauko Eskola Nazionalak. 1964.

Hirugarren kurtsoko ikasleak dituzue hemen agertzen direnak. Arlo askotako profesionalak atera ziren talde honetatik: buzodunak, komertzialak, okinak, banatzaileak, ixipu potoloz margotzen dutenak, funtzionariak, errekadistak, aparejadoreak, maisuak, iturkinak, elektrizistak, arotzak, pintzel finez margotzen dutenak, etab. etab. Langintza estraofizialetan dihardutenak ere badira: sukaldariak, jai-animatzaileak, argazkilariak, ehiztariak, karatekak, futbolistak, futbol entrenatzaileak, etab. etab.

Hona hemen beren izenak;

1. ilaran: Juan A. Torre, Iokin Redondo, Aranzabal, Jose Luis Beitia, Jimenez, Patxi Madariaga, Jose Ramon Markina, Meltxor Alberdi, Juan....., Menor, Fernandez eta Pedro Zumelaga.

2. ilaran: Mikel Gomez, Vicente, Iñaki Pedrejon, ezezaguna, ezezaguna, Virumbrales, Mendizabal, Kapaña, Tola, Madariaga eta ezezaguna.

3. ilaran: Egibar, Esnaola, Royo, Nuñez, Jaime Erdabide, Sanvi, Durana, Laskurain, Arteaga, Lete, Real, Jose Luis Zabaleta, Reyes Ruiz de Egin (Difunto), Olabarria, Anton Barrutia, Gorosabel.

4. ilaran: Aitor Azkarate, Retegi, Ruiz, Pedro Rico, Hipolito, Benito, Fernandez, Don Jesus (maisua), Araujo, Pildain, Paris, Markiegi, Gutierrez, Albisua eta Sebas Agirre.

Testua eta argazkia: Mikel Gomez

**JOSE
LUIS**
eta
MIKEL
URTEAGA, 6
☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17

Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa. Etxebarruen dekorazioa

ZAPELAITZ
Taberna
Egünek menuak astelehenetik ostiralera
San Lorentzo 25, BERGARA

Siaska
Dena zure haurarentzako
Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Ozaeta 6an. Amueblatua edo amueblatu gabe. ☎ 76 40 67.

Neska bat behar da Donostian pisua konpartitzeko. ☎ 76 19 29.

Garaje bikoltza alokairuan Burdñaten. ☎ 76 57 69/76 13 23.

Arrizurln garajea salgai. ☎ 74 30 55/ 74 43 19

Jacan etxe bat alokatzan da. ☎ 73 07 60. Be-goña. (gauzez).

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauzez.

Garajea salgai Santa Marinan. ☎ 76 32 70.

Garajea salgai Martokuan. Erosoa. ☎ 76 46 95.

Pisua salgai Zurradero 2.ean. ☎ 76 53 30 (gauzez).

Garajea salgai Urrats taberna azpian. ☎ 76 57 93.

Pisua salgai Artzamendin muebleekin edo mueble gabe. ☎ 76 40 82 (6etatik aurrera).

Pisua salgai Martokuan. 80 metro karratu. ☎ 76 14 13 (gauzez).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.

Pisu edo buardilla bat hartuko nuke alokalruan. ☎ 76 58 37.

DENETARIK

Kerosenozko estufa japoniarra salgai ☎ 765584.

Peavy 100 watts bi anpli salgai. Biak 100.000 pezetatn (bat 60.000). ☎ 76 10 34.

Baterla salgai. ☎ 76 47 07 (Richar).

Kotxea salgai. SS-P. 75.000pzta. ☎ 76 53 59.

Oinarrizko Heziketa Orokorra, U.B.I., B.B.B. eta Lanbide Heziketako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 76 44 34 (Amaia)

SS-4252-P matrikuladun Ford Scort 1.600 kotxea salgai. ☎ 76 50 18.

Skiko Koflach-Valuga botak erosiko nituzke. ☎ 76 05 92 (Jose Angel).

Egunero Bergaratik Zornotzara joan nahi dut. ☎ 76 44 46 (Xabier).

Etxean 2. BUP mailako partikularrak hartuko nituzke ☎ 76 38 71.

Etzeko gela bikoitz bateko altzarlak salgai. Egoera onean. ☎ 76 18 61.

ZANUSSI garbigailua salgai. ☎ 78 34 16.

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 35 50 (gauzez) edota 79 82 10 (egunez).

Garbigailua oparitzen dut. ☎ 76 03 73.

Lau MSX joku salgai. ☎ 76 59 47 (David).

Etxean barruko atea aldatzeko asmotan baldin bazaude ez itzazu bota, gustora hartuko ditut eta. ☎ 76 40 54 (gauzez).

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 32 51.

Software dun 2.400 BPS modema salgai. Berri-berria. Prezioa interesgarria. ☎ 76 51 62.

Nintendo bat salgai. 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

SEGA Megadrivea salgai. (8 jokurekin). 35.000 pza. ☎ 76 45 21 (Jabii).

LANA

AutoCAD, FP2 Informatikan praktketan lan egingo nuke. ☎ 73 33 42.

Emakumezko batek haurrak zalndu eta etzeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Itzulpen eta Interprete lanak egingo nituzke. (Ingelesa zein alemana) ☎ 76 46 54.

Neska batek etzeko lanak egin edota umeak zalnduko lituzke. ☎ 76 60 65.

Hildakoak

Jose Maria Idarreta Jauregi

otsailak 18, 71 urte

Juan Irizar

otsailak 20, 81 urte

Sergio Montero Rodriguez

otsailak 20, 68 urte

Petra Balzategi Iraegi

otsailak 23, 92 urte

Santiago Agirre Irazoki

otsailak 24, 71 urte

Jaiotakoak

Elena Perez Muñoz

otsailak 5

Ander Orbeagozto Igartua

otsailak 15

Ane Agriano Larrañaga

otsailak 15

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

Iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Dokorea, 7 ☎ 76 53 15
20570 BERGARA


TXAPELDUNEN GIMNASIOA



ESKALADA




ESKALADA




ESKALADA




PELOTA




SQUASH-A



PELOTA



BOXEOA




PELOTA



ZIKLO-KROSA



AUTOMOBILISMOA



KARATEA



KARATEA

AKTIBITATE GUZTIAK

Helduak	4.500 pzta.
Haurrak	3.000 pzta.
Urte guztia	37.000 pzta.

ADI!!, MARTXO ETA APIRILEAN EZ DUGU INSKRIPZIORIK KOB RATZEN